



Unibertsitateko gradu eta master titulu ofizialak lortzera bideratutako irakaskuntzetako ikasketa-planak EGIAZTATZEKO EBALUAZIO-PROTOKOLOA

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren arabera, unibertsitate-ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen.

2022ko urtarrilaren 13ko REACUren bileran onartutakoa

Unibertsitate-ikasketen ikasketa-planak

Unibertsitate-titulu baten ikasketa-plana da erakundeak tituluaren ezaugarriei eta irakaskuntzak garatuko diren baldintzei buruz duen konpromisoa, titulu hori definitzen duen ikasketa-proiektua zehazten baitute.

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuak, unibertsitate-ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenak, ikasketa-planen **printzipio gidariak** eta horien **egitura** definitzen ditu. Besteak beste, honako hauek biltzen ditu: heziketa-helburuak, transmititu nahi diren ezagutzak eta edukiak, ikasketa horien ezaugarri diren eta menderatu nahi diren gaitasunak eta trebetasunak, heziketa-proiektua eta ikasketa-sistema indartzen duten kanpoko praktika akademikoak.

Ikasketa-planaren egitura osatzeko, langile akademikoak eta irakaskuntzari laguntzeko langileak, ikaskuntzarako baliabideak eta Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema (KBBS) deskribatzen dira, eta Errege Dekretu horren II. eranskinean ezarritako unibertsitateko gradu- eta master-titulu ofizial baten ikasketa-plana egiartzatzeko eskabiderako **memoria-eredura** egokitu behar da.

Ikasketa-planen printzipio gidariak

Ikasketa-planek honako hauek egituratzen dituzte: unibertsitate-titulu ofizial baten heziketa-helburuak, transmititu nahi diren ezagutzak eta edukiak, titulu horren ezaugarri diren eta menderatu nahi diren gaitasunak eta trebetasunak, heziketa-proiektua indartzen duten kanpoko praktika akademikoak eta titulu horretan matrikulatutako ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko sistema.

822/2021 Errege Dekretuaren 4. artikulua arabera, unibertsitate-titulu ofizialen ikasketa-planek oinarri izan behar dituzten printzipio orokorrak hauek dira:

- unibertsitate-irakaskuntzak eskatzen duen heziketa-proiektuaren zehaztasun akademikoa;
- irakaskuntza zein ziklotan sartzen den, ziklo horien ezaugarri orokor edo espezializatuekin bat etortzea;
- ikasketa-planeko heziketa-helburuen, lortu nahi diren oinarrizko gaitasunen eta ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko ezarritako sistemen arteko koherentzia;
- gizartearen ulergarritasuna.

Halaber, ikasketa plan horiek erreferentziatzen izan beharko dituzte printzipio eta balio demokratikoak eta Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH).

Balio eta helburu horiek zeharkako eduki edo gaitasun gisa gehitu beharko dira, ikastetxeak edo unibertsitateak erabakitzen duen formatuan, eskaintzen diren ikasketa ofizial guztietan, kasuan kasukoa, eta betiere, haien izaera akademiko berariazkoa eta titulu bakoitzeko heziketa-helburuak kontuan hartuta.

ESG-ekiko lerrokadura

Ikasketa-planaren memorian erabilitako konfigurazioak eta terminologiak bat etorri beharko du Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan kalitatea ziurtatzeko irizpide eta jarraibideekin (Standards and Guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area, ESG). Irizpide eta jarraibide horiek erreferentzia izango dira unibertsitateetako Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemetan (KBBS) eta Espainiako unibertsitate-sistemaren kalitatea ziurtatzeko agentziek egindako kanpo-ebaluazioko prozeduretan (Kalitatea Bermatzeko Agentzien Europako Erregistroan inskribatuak, The European Quality Assurance Register for Higher Education, EQAR).

Modu horretan, gizarteak unibertsitate-tituluen zehaztasunean eta sendotasunean duen konfiantza indartu egiten da, etengabeko hobekuntza errazten da, ikasketak amaituta dituzten pertsonen enplegarritasun eta laneratze

duina eta kalitatezkoa indartzen da, eta, gainera, Espainiako unibertsitate-tituluen nazioarteko onarpena eta nazioarteko titulu bateratuen garapena errazten dira.

IKASKETA-PLANA EGITURATZEKO DIMENTSIOAK	ESG IRIZPIDEAK
1. Tituluaren deskribapena, helburuak eta justifikazioa	1.2. Programen diseinua eta onespena
2. Heziketa- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzak	
3. Onarpena, aintzatespena eta mugikortasuna	1.4. Ikasleen onarpena, bilakaera, aintzatespena eta ziurtapena
4. Ikasketen plangintza	1.3. Ikasleak oinarri dituen irakaskuntza, ikaskuntza eta ebaluazioa
5. Langile akademikoak eta irakaskuntzari laguntzeko langileak	1.5. Irakasleak
6. Ikaskuntzarako baliabideak materialak eta azpiegiturak, praktikak eta zerbitzuak	1.6. Ikaskuntzarako eta ikasleei laguntzeko baliabideak
7. Ezartzeko egutegia	
8. Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema	1.1. Kalitatea ziurtatzeko politika
	1.9. Programen etengabeko jarraipena eta aldizkako ebaluazioa
	1.7. Informazioaren kudeaketa
	1.8. Informazio publikoa
	1.10. Kalitatearen kanpo-ziurtapen ziklikoa

Ebaluatzeko dimentsioak, irizpideak eta jarraibideak

1. Tituluaren deskribapena, helburuak eta justifikazioa

Tituluak bere maila edo ondorio akademikoekin bat datorren deskribapen egoki eta koherentea jasotzen du, edukiari, irismenari eta, hala badagokio, ondorio akademikoari eta profesionali buruzko nahasterik eragin ez dezan.

- Tituluaren **izenak** bat etorri behar du ikasketa-planarekin, ezarritako heziketa-helburuekin eta Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan (MECES) duen mailarekin, nahasmendurik eragin gabe.

- Titulua atxikitzen zaion jakintza-esparrua kontuan hartu behar du ikasketa-planean garatzen den oinarrizko heziketa funtsean osatzen duten modulu, irakasgai edo irakasgaien ezagutza-eremuekiko koherentzia akademikoa.
- Jasotako **aipamen edo espezialitateek** ibilbide akademiko argia definitzen dute, eta, horren bidez, heziketa-proiektu orokorra osatzen da, eta hala badagokio, curriculum tematikoa edo profesionala areagotuz, arautegiarekin bat datorren kreditu-kopuruarekin.
- **Irakaskuntza-mota** tituluaren heziketa-helburuetarako egokia da, aukera presentzial, birtual eta/edo hibridoari zentzua ematen baitiote, araudiaren arabera kreditu ez-presentzialen proportzioarekin.
- **Kreditu-kopuru** osoa bat dator araudiarekin.
- **Eskaintzen diren plazen kopurua** bat dator ikasteko baliabideen, pertsonal akademikoaren eta irakaskuntzari laguntzeko langileen eskuragarritasunarekin.
- Tituluak **justifikatuta** egon behar du interes akademiko, zientifiko, profesional eta sozialarengatik, barne-eta kanpo-kontsultek abalaturik, plangintza estrategiko instituzionalean eta testuinguruan barneratuta, tradizioan, tituluaren eskaintza orokorrean eta titulu hori ematen duten unibertsitatearen edo unibertsitateen potentzialtasunean txertatuta, planifikatutako ikasketa-emaitzak lortu ahal izateko.
- Titulua definitzen duten **heziketa-helburuek** argiak eta esplizituak izan behar dute, tituluaren justifikazioarekin eta dagokion MECES mailarekin bat datozenak.
- Hala badagokio, irakaskuntzen plangintzan txertatzen diren curriculum-egitura espezifikoen helburuak gizaratearen eskaera jakin batzuei, etengabeko eraldaketari eta ezagutza zientifiko, teknologiko eta humanistiko berrien beharri erantzuten diete, eta bat datoz tituluaren heziketa-helburuekin.
- Hala badagokio, **irakaskuntza-berrikuntzako estrategia metodologiko** espezifikoek heziketa-helburuak lortzen laguntzen dute eta tituluaren osotasuna bideratzen dute.
- Tituluaren helburu diren egreso-profilak argi eta garbi definitu behar dira, eta, hala badagokio, araututako lanbide-jarduerak gauzatzeko ondorioak ere jaso behar dira.

2. Heziketa- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzak

Heziketa- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzek, ikasleak lortu beharreko ezagupen edo edukietan, gaitasunetan eta trebetasunetan edo abilezietan zehaztuak, ebaluagarriak izan behar dute, eta bat etorri behar dute titulua emateko eska daitezkeenekin eta Goi-mailako hezkuntzaren Europako Esparruan ezarritakoekin.

- Tituluaren proposatutako heziketa- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzak argi eta zehatz idatzita egon behar dute, bai eta MECES mailarekin lerrotatuta ere. Tituluaren izenarekin, haren ezagutza-eremuarekin, heziketa-helburuekin eta graduatu-profilekin bat etorri behar dute.
- Tituluaren proposatutako heziketa- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzak ebaluatu egin behar dira, eta ikasle guztiek prozesu hori eskuratuko dutela bermatu behar dute.
- Lanbide-jarduera arautuetan aritzeko gaitzen duten tituluaren kasuan, heziketa- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzek dagozkien ministerio-aginduetan jasotako gaitasunak izan behar dituzte edo horiekin bat etorri behar dute.

3. Onarpena, aintzatespena eta mugikortasuna

Tituluak sistema irisgarriak izan behar ditu, ikaslearen sarbide-bideak, onarpen-, aintzatespen- eta transferentzia-prozedurak eta mugikortasuna arautzeko eta ikasleari horien berri emateko.

- Sartzeko baldintzek, sartzeko proba partikularrak barne, indarrean dagoen legeriarekin bat etorri behar dute.
 - Titulua irakasteko ofizialak ez diren hizkuntzak aurreikusten badira, haien mailari buruzko informazioa sartu behar da, baldin eta ikasle horren ama-hizkuntza ez bada ikasketetan baliatuko dena, Hizkuntzen Europako Erreferentzien Marko Bateratuan (MCERL) ezarritako moduan.
- Onartzeko irizpideek publikoak eta akademikoak izan behar dute, eta, hala badagokio, onartzeko irizpide partikularrak ere bai; argi eta garbi deskribatuta egon behar dute, ez dute nahasmendurik sortu behar, eta bat etorri behar dute tituluaren gai-eremuarekin.
 - Masterrean sartzeko heziketa-osagarriak aurreikusten badira, tituluaren gai-eremua kontuan hartu behar dute eta onartzeko irizpideekin bat etorri behar dute.
- Kredituak aintzatetsi eta transferitzeko araudiak bat etorri behar du indarrean dagoen legeriarekin, tituluaren ezaugarriekin, eta titulua benetan ezarri aurretik onartutakoa izan behar du.
- Lanbide-esperientziagatiko kredituak, berezko tituluetatik eta/edo unibertsitatez kanpoko goi-mailako beste irakaskuntza batzuetatik datozen kredituak onartzea aurreikusten bada, tituluaren heziketa- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzen arabera egin beharko da aintzatespen hori.
- Hala badagokio, ikasketa-planak kontuan hartu behar du ikasleen mugikortasuna behar bezala antolatu behar dela, tituluaren heziketa- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzekin bat datorren kreditu-aintzatespena barne.

4. Ikasketen plangintza

Moduluetan, eta/edo irakasgaietan deskribatutako ikasketa-planaren diseinua koherentea eta koordinatua da, eta kontuan hartzen du ikasleak denboraldi jakin batean egindako lana.

- Plangintza bat dator ikasleak lortu beharreko heziketa- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzekin, irakaskuntza-modalitatearekin eta, hala badagokio, curriculum-egitura espezifikoekin.
- Plangintzak koherentzia eta barne-koordinazio orokorra du modulu, irakasgai edo irakasgaien tipologiaren, haien denbora-antolaketaren, heziketa-jardueren eta eskola-jardueren presentzialitatearen, irakaskuntza-metodologiaren (hala badagokio, berariazko irakaskuntza-berrikuntzako estrategia metodologikoen), ebaluazio-sistemen eta, hala badagokio, curriculum-egitura espezifikoen artean.
- Kredituen esleipenak bat etorri behar du ECTSen definizioarekin, ikaslearen denboraren banaketari dagokionez.
- Modulu, irakasgai edo irakasgaiei dagozkien kredituen tipologiak, tenporalizazioak eta esleipenak indarrean dagoen legeriaren arabera izan behar dute, eta bereziki hauek errespetatu behar dituzte:
 - Ikasturte bakoitzeko ECTS kopuru osoak 60 izan behar du, ikasturtean zehar modu orekatuan banatuta egongo direnak.

- Gradu-tituluak oinarrizko heziketako 60 ECTS izan behar ditu gutxienez, eta horien erdiak, gutxienez, titulua inskribatzen den jakintza-esparru berari lotuta egon behar du, gutxienez 6 ECTS dituzten irakasgaietan edo materietan zehaztuak eta ikasketa-planaren lehenengo erdian eskainiak. Gainerako kredituak gaitasun eta ezagutzen sendotasuna indartzen duten irakasgaiez osatuta egon behar dute. 300 edo 360 kredituko graduako tituluetan, oinarrizko heziketak gutxienez 75 eta 90 ECTS izango ditu, hurrenez hurren.
- Lanbide arautuetara bideratutako tituluen kasuan, ikasketa-planaren proposamenak dagokion ministro-aginduetan adierazitakoa bete behar du.
- Gradu-tituluak curriculumetik kanpoko praktika akademikoak barne hartzen baditu, praktika horiek gehienez ere tituluko ECTS guztien % 25 izan behar dute (Europako araudiaren arabera bestelako ehunekoa izan behar duten graduak edo aipamen duala duten graduak izan ezik), eta lehentasunez ikasketa-planaren bigarren erdian eskaini beharko dira.
- Ikasketa-planaren amaieran, gradu-amaierako edo masterreko lan bat egin eta publikoki defendatu behar da, eta gutxienez 6 ECTS balioko du. Lan hori ikasketa-planaren azken fasean egin behar da, eta titulu horri lotutako gaitasunak ebaluatzerara bideratuta egon behar du. Gradu-amaierako lanean ECTS gehienekoa 24 izango da (300 edo 360 ECTSko tituluak izan ezik, horietan 30 eta 36 ECTS izan baitaitezke, hurrenez hurren), eta master-amaierako lanean gehieneko ECTS kopurua 30 izango da.
- Hala badagokio, ikasketa-planak irakaste-modalitatearen arabeko plangintza bereziak jaso behar ditu, eta ziurtatu behar du hainbat irakaskuntza-modalitatek aukera ematen dutela heziketa- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitza berak lortzeko.
- Hala badagokio, tituluaren aipamenean edo espezialitateen konfigurazioak eta plangintzak bat etorri behar dute haien ezaugarriekin.
- Hala badagokio, curriculum-egitura espezifikoaren konfigurazioak eta plangintzak bat etorri behar dute tituluaren ezaugarriekin, eta heziketa- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzak ziurtatu behar dituzte.

5. Pertsonal akademikoa eta irakaskuntzari laguntzeko pertsonala

Irakasleek eta tituluari laguntzeko langileek egokia izan behar dute ikasketa planean aurreikusitako heziketa eta ikaskuntza prozesuaren emaitzak ziurtatzeko.

- Eskura dauden eta aurreikusten diren giza baliabideek (kopurua, kategoria, irakasleen eta ikertzaileen esperientzia eta laguntzako langileen trebakuntza) nahikoak eta egokiak izan behar dute proposatutako ikasketa-plana gauzatzeko, denboran zehar iraunkortasuna bermatuz (plaza-kopurua, eskaintako irakaskuntzen modalitateak, aipamenak eta espezialitateak eta irakasteko hizkuntza kontuan hartuta).

6. Ikasteko baliabideak: materialak eta azpiegiturak, praktikak eta zerbitzuak

Ikasketa planean aurreikusitako jarduerak garatzeko behar diren baliabide materialak, azpiegiturak, praktikak eta zerbitzuak ikasketa plan horretan aurreikusitako heziketa eta ikaskuntza prozesuaren emaitzak ziurtatzeko egokiak izango dira.

- Eskura eta aurreikusita dauden baliabide materialak eta zerbitzuak, norberarekin eta itunduak (irakaskuntza-guneak; instalazio eta ekipamendu akademikoak; laborategiak; informatika-gelak; ekipamendu zientifikoa, tekniko humanistikoa edo artistikoa; liburutegia eta irakurketa-gelak; eta teknologia berriak eskura izatea -Internet, campus birtuala-; eta abar-, nahikoak eta egokiak izan behar

dute proposaturiko ikasketa-plana aurrera eramateko eta denboran jasangarritasuna bermatzeko (plaza-kopuruaren eta eskainitako irakaskuntza-moten arabera).

- Ikasleari laguntzeko eta orientatzeko zerbitzuak bermatuko dira, unibertsitatean lehenengo aldiz hasia eratzeko eta heziketa- eta ikaskuntza-prozesuan laguntza emateko.
- Tituluak kanpoko praktika akademikoak barne hartzen baditu, ikasle guztiek praktikak egiteko aukera izango dutela bermatu beharko da. Antolaketa-mekanismoa sartu beharko da, eta, era berean (592/2014 Errege Dekretuaren arabera), hezkuntza-lankidetzarako hitzarmen nagusiak edo ikasleari harrera egingo dioten erakunde, instituzio eta enpresek sinatzeko konpromisoak aurkeztu beharko dira, praktika horiek garatzen dituzten heziketa-proiektua eta ezarriko den baldintzak jasoko dituztenak.

7. Ezarpen-egutegia

Titulua ezartzeko prozesuak denboran planifikatuta egon behar du, eta, hala badagokio, lehenik dauden ikasketa-planetatik datozen ikasleak egokitzeko mekanismo bat jaso behar du.

- Titulu berria pixkanaka edo osorik ezartzeak aurreko unibertsitate-antolamenduetatik datorren ikaslearen eskubideak errespetatu behar ditu.
- Ikasketa-plana iraungitzen den beste ikasketa-plan bati lotuta badago, iraungi beharreko planetik datorren ikaslearentzako egokitzapen-prozedurak publikoak eta bi ikasketa-planekin koherentea izan behar du.
- Beste ikasketa-plan batzuetatik datozen ikasleak egokitzeko ibilbideetan sartzeko irizpideak eta baldintzak eta horien curriculum-diseinua bat etorri behar dira ikasketa-planarekin eta alde aurreko heziketarekin.

8. Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema

Tituluak Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema (KBBS) baten mende egon behar du, haren kontrola, berrikuspena eta etengabeko hobekuntza ziurtatzeko.

- Proposatutako KBBSak (unibertsitateko titulu, zentro edo orokorrarena) ikasketa-plana behar bezala ezartzen eta garatzen dela bermatu behar du.
- KBBSrekin, ikasketa-planaren garapena aztertzei aukera ematen duen informazioa kudeatzen da, eta informazio garrantzitsua argitaratzen da:
 - Ikaslearentzat, bai matrikulatu aurretik (tituluaren ezaugarriak, sartzeko eta onartzeko sistemak, irakasteko hizkuntza, etab.) bai heziketa eta ikaskuntza prozesuan.
 - Irakasleentzat, enplegu-emaitzetan eta gizarte osoarentzat.